

Kaixo Eilaskide:

Azkenean, atzo, otsailaren 9an, Haurreskolak Partzuergoak ezarritako murrizketen kontrako epaiketa, hau da, gatazka kolektiboa gauzatu zen.

Hau guztia, aurrera eramateko asmoz, hiru sindikatuok LAB, STEE-EILAS eta ELA, epaitegiaren aurrean elkartu ginen.

Hasteko, goizeko 9:30tan epaiketaren aurrean kontzentrazio bat egin genuen, eta ondoren, epaiketa hasi bezain pronto barrura sartu ginen.

Hiru sindikatuko abokatuek gure aldarrikapenak argi eta garbi utzi zituzten. Bestalde, Partzuergoaren adierazpenak entzutean, argi geratu zen Partzuergoaren jarrera ohikoa dela.

Momentuz, honen inguruan itxarotea bakarrik gelditzen zaigu, epaiketaren erantzuna jaso arte.

STEE-EILAS sindikatuak argi dauka: ez dugu murrizketarik nahi eta ez dugu inolako murrizketarik babestuko.

Horregatik, animatzen zaituztegu datorren egunetan, beste sindikatuekin batera egingo diren mobilizazioetan parte hartzera.

ASKI DA!!! HAURRESKOLETAN MURRIZKETARIK EZ!!

